

BIZITZA ERRUKITSUA

Gutxi dira agintarien arauak betetzen ez dituztenak. Badaude, baina ez da joera orokorra, alderantziz. Gainera, zorionez, oraingoan, komunikabideek “txarra” ez ezik, “ona” ere azpimarratzen dute, positiboa, imitatzea merezi duena. Beti horrela bedi!

Zentzu honetan, jende helduaren, haurren, mendekotasuna duten helduen eta beste hainbaten senideek, hala nola osasun-langileek eta gizarte-zerbitzuetako kide bezela, mila eta bat profesionalek, txalo-zaparrada merezi dute, zeinak eta gehiago eszenifikatzen ari dira. Eskerrak oraindik esker onekoak izaten jakin badakigun.

Norbaitek galdetuko zuen: zergatik egiten dute hau guztia? “Tokatzen zaielako” ote? Ez dutelako beste erremediorik, legeak behartzen dituelako? Bestela, lanetik botako dituztelako? Beno, denetik izango da, noski, baina ez.

Nik uste dut badela zerbait gehiago, askotan teorizatzen duguna, baina gutxitan dakigula ikusten eguneroko bizitzan.

Jende ona direlako da, seguru. Kontzientzia duen jendea da. Balioak dituzte. Gizakiak dira, eta gizatasunez bizi nahi dute, ez edonola. Lagundu nahi dute, parte hartu nahi dute, konponbidearen parte izan nahi dute eta ez arazoaren parte. Esaten duguna baino jende on gehiago dago.

Kristautasuna ez da kristau deritzogunen kontua bakarrik. Ebanjelioa ez dago kateatuta, ez ezerengatik ez inorengatik. Jainko-maitasuna guztion Aita-Ama da, guztiak gara bere seme-alaba, eta bere zigilua daramagu, modu batean edo bestean, norberaren bizitzan eta gizarte osoan murgiltzen eta agerian jartzen gaituena.

Zorionez, Jainkoa gurekin dago hemen, eta guk bere Bizitza Berrian parte hartzen dugu, kontzienteki edo oharkabea, baina, batez ere, erruki horretatik parte hartzen dugu.

Xabier Andonegui Mendizabal,
Pastoraltza Sozialaren eta Misioen Bikarioa